



Irugarrengo au degu Enziklikaren azken partea. Elizak gaurko munduarekin izan bear dituen artu- emanak aztertzen dira bertan.

Kristau bizitzaren berezitasuna

Kristauak bere izakera bereziaz konzienzia zoli bat artzen badu, eta bere eredu dan Kristori jarraitzen saiatzen bada, berez bezela etorriko da ondorioa: kristauaren eta munduko giroaren artean alde aundia, bestelakotasun izugarria egotea. Izan ere, gogora dezagun zer dan "mundua" ebanjelioarentzat: fedeari eta graziari gorroto dion gizadia, bere andiustean murgildua edo bestela pesimismu larri batean sartua bizi dana. Eta San Paulok ara zer dion: Ez zaitzela egin mundu onen iduriko (Rom. 12, 12). Beti izango da ezin estalduzko leize bat, errotikako alde eta desberdintasuna kristau bizitzaren eta mundutarren bizimoduaren artean. Eta ori bataiotik eldu dan gauza da. Orduan izan baikifian Kristori txertatuak eta aren Pazko-misterioari elkartuak (Rom. 6, 3-4). Orregatik dio San Paulo berak: Ez zaitzete fedegabeekin uztarri batean uztartu (2 Cor. 6, 16). Eta Kristok: Munduan zaudete, baiña ez zerate munduarenak (Io. 17, 15-16).

Gaurko munduarekin elkarrizketa

Kristauen bizitza eta munduarena zearo dira, ba, desberdifikak. Baiña desberdin eta berezi dala esateak ez du, orregatik, esan nai, alkarrengandik urrunduta bizi bear degunik; edo munduarekiko ajolakabe edo bildurti izan bear degunik. Are gutxiago mezeziatu bear degunik. Desberdin bai, berezi bai, baiña ez etsai. Medikuak egin oi duena egin dezagun guk ere: ark gaisoa nai du sendatu, eta ortarako gaisoari urrerratzten zaio, baiña ala ere bere burua gordezten du gaitzean ez erortzeko.

Elizak ere berdin. Berak ba du berriona zabaltzeko agindu eta mandatua. "Joan eta eskola itzazute gizon guztiak" (Mt. 28, 19). Zeregin aundi au beteko badu, kontserbadore xoilla izan baiño zerbait gelago bearko du egin. Emanak izan zaizkion ondasunak zintzo gorde bearko ditu, bai, baiña orrekin ez dira bukatzen bere zeregifikak. Gaurko munduarekin elkarrizketan ere bearko du egin.

Leon XIII garrena asi zan bere idazkietan gure garaiko kezka, auzi eta gaiak azaltzen. Eta berdin egin dute gero Pio XI, Pio XII eta Joan 23 garrenak.

Konbertitu aurretik, edo obekiago, konbertitu al izateko, munduari urbildu bear zaio, itza zuzendu bear zaio.

Eta gure itz ori guzientzat izan dedilla, ifior baztertu edo kanpoan utzi gabe. Jakin dezagun, gaitzera, itxaroten. Jainkoaren ordua Ark bakarrik baitaki. Laboreak eltzeko, ez al dute bere denpora bear?

Gure izketa ez dedilla izan dena itsu itsuan kondentzera dijoana, erasotzekoa edo min ematekoa. Ezta bestea beingoan irabazteko asmoarekin egiña ere. Ori bai, bestearen ona eta probetxua zintzoki ta gogo onez billatzen degula.

Elkarrizketak nolakoa bear duen izan

Gauza guztien gaitzetik, mintzo gaitzean argi eta garbi. Aztertu dezagun gure izke-

ELIZA, ZER DIOZU ZERE BURUAZ?

("Ecclesiam suam" Enziklikaren laburpena) III

ra modua: errikoia ote dan, ulertzeko modukoa ote dan. Izan dedilla, gaiñera, goxoa eta maitagarria. Zuurra eta zentzuduna alde batetik, pedagogiaren araura jokatuaz, eta leiala bestetik, irakatsi bear dana zuzen eta dan bezela irakatsiaz. Ez gaitezen gelegi lot mintzatze-molde zurrun eta illetara.

Mundua ez da kanpotik salbatzen. Bear da aren oituretan parte artu (onak diranean beintzat), entzunak izatea nai badegu. Gizonaren boza, eta areago biotza, bear da aditu, konprenitu eta aintzat artu. Gizonen anai biurtu. Adiskide egin. Beroiei serbitzeko gogo zintzoa azaldu.

Irenismuaren arriskua

Ba da lan ontan arrisku bat: egia emetu, beraatu nai izatea. **Irenismua**, alegia. Arrisku oni iges bear ko zaio egin. Kristoren dotriñari leialtasun osoa gorde gabe, ez dago benetazko apostolu izaterik. Bakoitzak berak kristau deiaru indar guztiez bear ko dio erantzun, gezurraren lilluramendutik bere burua nai badu gorde.

Gure predikuak izan bitez bakun-sotil-gardanak, itzaren indarrez distikorrak.

Ez dezagula iñor bazartu. Iñor ere ez bedi gure etsai izan, berak ala nai ezpadu.

Elizak esateko aundi bat du gure mendeko danentzat: "Zuei falta zaizuena, zuek billatzen dezuena, ara nik euki. Guzti-guztiontzat dut mensaje bat. Gizonarekin zer-ikusi duten gauza guztiak, orobat dute zer-ikusi nerekin".

Jainko-ukatzailleak

Elkarrizketa egiterakoan, orra or —urru-tien daudenekin asteko— Jainko-ukatzailleekin nun topo egiten degun. Ateismua da gure mende ontako gertakaririk larriena. Jainko-ukatzea dauka Komunismuak bere oiñarritzat. Gure indar guztiez ukatze oni gogor egingo diogula, ez dago esan bearrrik. Komunistak agintari diran lekuetan ez dago elkarrizketa egiterik, Elizak ezpaitu itzegiterik. Isiltasunaren Eliza izatea beste biderik ez du. Komunistak itzaz baliatzen dira ez egiaren billa ibiltzeko, beren probetxuzko elburu batzuetara eltzeko baizik. Ala ta guztiz ere, gogoan euki bear da Juan 23 garrenak ziona: liburu-etako dotriña eta sistemak arri egifiñk gelditzen direla, baiña giza-mobimenduetan aldaketak gerta ditezkelak.

Jainkoagan siñisten dutenak

Gero ba degu beste sail edo barruti bat: Jainko bakarra aitortzen dutenak: Judu eta Mahomatarrak, alegia. Eta Asia ta Afrikako beste erlijioetakoak ere bai. Gogo onez aitortu bear ditugu erlijio oietan arkitzen diran baliozko gauzak. Eta bat gatozenetan elkartu ere bai eurekin. Egiatzko erlijioa bat eta bakarra dala siñistuaz, alere.

Katoliku ez diran kristauak

Beste esparru bat, gugandik urbillagoa: katoliku ez diran kristauena. Oiekin ere indartu ditzagun danon arteko lokarriak, ados gaudeneko puntuak. Ala ere, gure fedea oso-osorik gordeaz. Ba dakigu —dio Paulo VI garrenak— Erromako Aita Santua bera dala batzuen iritziz kristauen batasunerako oztoporik aundiena. Zein okerra dan uste au esan bearrrik ez dago. Batasuna ez da egingo, Kristok eman dituen oiñarri-legeak gordeaz baizik. Gaiñerakoan, Ekumenismu-ari —kristauen batasuna lortzeagatik sortu dan mobimenduari— eman deziagun gure laguntza eta berotasun osoa.

Katolikuak

Eta azkenik, izan dedilla elkarrizketa etxebarruko semeen artean ere. Baiña autoritatea eta obedentzia beti zutik gelditzen direla. Maxiatze eta asaldatze-naiak, eta elkartasunaren arima dan karidadeak ezpaidute alkar ondo ikusten.

Jakin dezagun bere istillu ta buruauste guztiekin, Eliza bizi-bizia dagoela. Sekula baiño biziago.

* * *

Ikusi degunez, gain begiratu bat ematen dio Aita Santuak Enziklika ontan Elizak gaurko egunean duen egikizun aundiari: alde batetik, beti bat bear du izan, eta ezin utzizko bere ondasunak eta egiak bear ditu arretaz gorde eta zaitu; bestetik, berriz, zenbait gauzetan gaurko munduari egokitu bear zaio. Egokitze-lan ontan eskuak sartu ditu Konzilioak, danok dakigun bezela. Eta emen irizpide nagusi batzuk ematen dira, "aggiornamento"-ko lan ori irizpide oien argitan egin dedin. Gaurko biurtu bai, baiña era berean Kristori ta Elizaren izakerari leial egonez. Elizak ez du bere burua berriztutuko saldukeriarik egiñez.

Aita Villasante.